

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKAREN ATARIAN*

Iñaki Camino

1. SARRERA

Omenaldi liburu honetarako merezimendu osoa duen Txillardegik euskararen etorkizunerako oinarri-oinarrizko lana egin du beti. Guk ere oinarrizko ideia batzuk ekarri nahi ditugu horren heldugabe dagoen Euskal Soziolinguistikaren eremura, Antiguako hizkuntzalari donostiarrak esanen lukeenez, euskararen endoglosiaren alorrera. Han-hemenka bildu ditugun ezpalak dira, beste hizkuntza batzuetan gauzak egun zer-nola gertatzen diren erakusten digutenak; nola edo hala, euskararen baitan gertatuko diratekeen aldaketa eta berrikuntzek ez lukete aurkeztuko ditugunetarik guztiz urrun ibili beharko; gune arras euskaldun batzuetako salbuespenak salbuespen direla eta egun nagusi dabilen eredutik guztiz urrun gelditu diren hizkeren errealitatetik landa, hori da euskara berriari buruz dakigun apurrak oraingoz adierazten diguna.

Idatzi ditugun lerro llabur hauetan hizkuntza baten barreneko aldaera edo formen arteko lehiak aritu gara gehienik, ez bi hizkuntzaren edo gehiagoren arteko gora-beherez. Hartara, hizkuntzaren soziologiako gaiak alde bat utzirik, soziolinguistikaren ardatzari uztartuko gatzazkio funtsean.

Hizkuntzaren aldakortasunaren gai zabalean murgiltzen denak badaki dialektologiatik soziolinguistikara dagoen muga lausoaren inguruan igerikatu

* J. A. Letamendiak, M. L. Oñederrak eta K. Zuazok artikulu honi oharra egin zizkioten 1999ko udan; hirurak hartzekodun ditut eta eskerrak ematen dizkiet. Gaiak diharduten oraintsuko lan batzuen berri ekarri da orain artikulura, baina 1999an idatzitakoa bera da funtsean dakarguna.

behar duela; hartara, honako eremuak ukituko dira artikuluxka honetan: euskalkien arteko eragin diaglosikoak¹, eredu estandarra eta folk hizkeren arteko adbergentzia edo goitik beherako eragin diglosikoa, hizkera baten barreneko berregituraketa, hizkuntza-arau monozentrikoen eta plurizentrikoen konstelazioak, euskalkien erabilera eta prestijioa eta herriko hizkeraren alde azken urteotan Euskal Herriko hainbat eta hainbat bazterretan sumatzen den kementa, iritzi batzuen kasuan ikuspegi idilikoa izatera ere iristen dena. Dena den, garrantzi handiko gauza da auzi hau estetika hutsa ez dela jabetzea; azken batean, hizkuntzaren kalitaterik ezak eta haur anitzen euskaran sumatzen den gaitasun murrizak etxeko eta lagunarteko hizkerak jasan duen ahultzean baitute jatorria eta guztiz loturik dago honekin guraso eta seme-alaben arteko euskararen eten edota jauzia (cf. Zuazo 1999a, 1999b, 2000; Martínez de Luna 2001: 106-8 eta Salaburu 2002: 158 eta 168). Halaz guztiz ere, guk ez dugu arazo bihurtu den gai hau ukituko, hizkeren arteko auzira mugatuko dugu jarduna. Arazoak konpontzen hasteko, gainera, deskribapenak behar izaten dira eta definizioetan bat etortzea ere gauza beharra da.

Bestalde, gure herritik kanpo ageri diren joerei eta norabideei begiak herstea jokabiderik egokiena iruditzen ez zaigunez, hor barrena sumatzen denari ere arreta amíni bat ezarriko diogu.

2. HIZTUNA ETA DIALEKTOA AURREZ AURRE

Dialektoak bikoitza den eginkizuna du: bere hiztunei hizkuntza horretako gainerateko hizkeretako kideekin elkar ulertzeko aukera ematen die dialektoak, baina zeregin demarkatiboa ere badu: hizkuntza hori baliatzen duten beste erkidegoetarik bereizteko, gizatalde batek bere hizkera berezia du (Séguy 1973). Bereizkuntzaren oharren horretan oinarritzen du Terracini-k dialektoaren sentimendua (1937, 1960); aipatu sentimendu horren arabera hiztuna bere erkidegoari loturik egon ohi da. Hizkera-erkidegoaren bizitasunaren ezaugarria da arestiko sentimendu hori eta Euskal Herriko bazter guztietan berdín gertatzen ez bada ere, Bizkaian adibide nabarmenak ditugu: «eixu ondarrutar!» entzuten genien bertako gazteei duela hogeí urte arrantzale-herri

¹ *Diaglosia* darabilgunean hiztunak hizkera geografikoen artean batetik bestera edo bat baino gehiagotara bere mintzoan egiten duen iragatea adierazi nahi dugu; aldiz, *diglosia* diogunean, bi ereduren arteko konkurrentziaz dihardugu; eredu horietarik bat, gainera, nagusi dabilena da. Gure kasuan euskara batua eta norberaren herriko hizkera liriateke bi ereduok.

horretan. Lekeitioko kasua ere nabarmen agertu da egin diren inkestetan: ikus (Uhalde, Elordieta & Elordieta 1994: 1-5).

Eremu dialektal-geografikoan erkidegoaren barrena begira dauden tradiziozko jarrera berdintzaile eta konbergenteekiko hiztunak nolako kokagunea hautatzen duen azter daitekeen gauza da. Horretarako, gizartearen barreneko sareketan norbanakoak dituen hartu-eman eta erlazioak nolakoak diren eta erreferentziatzat zein talde jotzen d(it)uen ezagutzea baitezpadako baldintza da; norbanakoaren hizkera-jardueran oinarriturik joerek eta norabideek berekin loturik daramaten prestijioaren arabera hiztunak bere burua non kokatzen duen edo non kokatu nahiko lukeen antzeman dezakegu². Ezin ahantzi dugu prestijioaren ifrentzuan estigma izpiak edota hainbat hiztunen ziurtasun linguistikorik eza suma ditzakegula; ikerketa xeheek erakutsi dutenez, hiztunok hizkuntzaren baitako autogorrotoraino edota prosodiaren aldetikako ahoko giharreen doitze "kultural" edo "gizartezko"-etaraino irits gaitzke; horretaz jabetzea ez legoke gaizki: hizkerarekiko jarreraren ikuspegi kognositiboan, sinesteak, estereotipoak eta perzeptzioak sar ditzakegu eta alderdi afektiboan, zirrarak eta sentimenduak.

Unean uneko hizkuntza-aldaketa sinkronikoen inguruneen erreparatuz egin diren hizkuntza-azterketek erakutsi dutenez, arestiko kontzeptu eta bizikizun horiek guztiek, oharkabean baizik ez bada ere berebiziko garrantzia dute hiztunarentzat. Ez dezagun ahantz hizkuntzalaritza gizarte zientzia dela eta gizakia funtsezko partaide dela eskuartean daukagun irazki honetan guztian.

Oinarri gisa hiztuna hartuz gero hasteko bederen konbergentziaren honako eredu baliatzen ahal dugu: hiztunak gizarte-integrazioaren beharra sentitzen du beste norbaiten aitzinean dagoelarik (Giles 1977: 28). Egokitzapenaren teoriak, hiztunak beren hizketa-estiloak elkarri doitzeko edota berdintzeko motibaturik egon daitezkeela dio; norberaren edo taldearen baloreak, jarrera eta asmoak, funtsezko eragile dira honetan. Egokitzapenak nahiz dibergentziak, gizartezko onespina edota gaitzespena komunikatzeko mekanismo gisa joka dezakete (Giles 1980: 105). Konbergentziak bere kostuak ditu, egokitzeko egiten den eginahala eta norberaren integritatearen eta nortasunaren galera neurri bat, esaterako. Konbergentziarik emankorra emeki gertatzen dena da, aldaketa mailakatua denean.

² Euskararen egungo egoera kontuan harturik, uste dugu berdin-berdin hauta lezakeela euskal hiztun batek bere burua bereizteko hala hizkera-eredurik herritarrena nola estandarrena; hemen giltza bere eguneroko inguruan zein eredu den nagusi jakitean legoke. Ez dago prestijio monolitikorik; non nola.

Dibergentziak edo konbergentziarik ezak, aldiz, norbaiten nortasun eta kulturako bereizgarriari eusteko ekintza sinbolikoa adieraz dezake. Hainbat kasutan hiztunak ez dio bere hizkera-estiloari eutsi nahi bakarrik: beste hiztunekiko elkarreragintzan inoiz bere hizkera-eredua eta bestelako hizkererikoko dibergenteak diren bere ezaugarriak enfatizatzen ere jo ohi du. Arestiko konbergentziakoa bezala beste hau ere jarrera psiko-linguistikoaren estrategia den aldetik, gizartezko disoziazio-taktika gisa ere har daiteke aipatu jokiera.

Hau da guti gora behera pertsonen gertatzen zaiena, hiztunoi gertatzen zaiguna; aldeak alde eta historiako errealitateen emana ahantzi gabe, dialektoei edo hizkeren gertatzen zaiena honekin guztiarekin loturik legoke. Hizkera batek eduki dezakeen konpromisoaren adibide gardena ageri zaigu Gipuzkoako Lasarteko hiketako adizkietan: eguzkiarekin zuri eta ilargiarekin beltz egin behar den uneetarako, *zitziskien* nahiz *zizkiateken* 'zizkidaaten' ageri dira errepertorioan, biak berdin Lasarteko dira; konbergentzia da transizio-eremuen sorrera eragiten duen prozesuetarik bat.

3. ALDAKETA GARAIAN MURGILDURIK: ZARAUTZ, AZPEITIA, HONDARRIBIA ETA ZALDIBIKO ADIBIDEAK

Ahozko euskararen inguruan orain berean iragaten ari garen hainbat prozesu gure aitzinetik bizi izan dituzten hizkuntzen kasuan nabarmena da, dela koineizazioagatik, dela industrializazioagatik, dela urbanizazioagatik edo dela estandarizazioagatik, aldakortasunaren ardatz horizontaletik bertikalera bideratu direla dialektologiako azterketa eta analisi lanak: maila geografikotik maila diastratikoan lan egitera jo dute hizkuntzalariek soziolinguistikaren gunera helduaz. Prozesu horretan, modernitatearen esparruko eguneroko berrikuntza askotariko berdintzaile gero eta ugariagoak, gizarte-mailako aldaketak eta mugimendu demografikoak izan dira hizkuntza-egoera berrien erantzule nagusiak; honelakoetan hizkuntzari, eragile baino gehiago, gertakarien jasale eta ondorioen biltegi izatea dagokio, ikusle eta eramaile izatea.

Dagoeneko, begien bistakoa da Euskal Herriko eremu batzuetan jatorrizko hizkerak, herrikoak, dialektoak, euskalkiak, sendo dirauela. Beste batzuetan, berriz, hizkuntzaren aldioroko erabilera eta orain arteko transmisio naturala hainbat interferentzia edo zailtasunek inguratzen duten gunetan, jatorrizko hizkerak eta ereduak urtzen ari dira, beste ur-korrante ugariago eta eman handiagoko batzuetara murgiltzen jo dute, ordura arteko hizkera-erre-

ferentzia dialektal nagusia gaitzak harturik baitago. Donostiakoa izan daiteke adibide nabarmena (cf. Camino 2000).

Ez dezagun pentsa, bestalde, soilik gurean ari direla herri-hizkerak ur-tzen. Euskal Herrian bart arratseko gertakaria denez, estandarizazioaren garaia ren hurbiltasunagatik sentitzen dugu hori, hizkuntzaren batasun esplizitua duela hogeita hamabost urte hasi zelako eta egun ere, inoiz baino areago, Euskaltzaindia erabakiak hartzen eta erregelak hedarazten ari delako. Iruditzen ez bazaigu ere, hemendik kanpo, industrializazioaren ondorio den urbanizazio-prozesua eta homogeneousiorantzko joera orokorra herri-hizkerak koloregabetzen ari dira. Italiako hizkeren egoeraz diharduen Sobrero-ren 1997ko azterketa batean (Görlach 1999: 187), eredu estandarren hedadura eta dialekto nabarmen edo markatuen beheraldi "drastikoa" aipatzen zaizkigu. Alemanian ere antzera dabilta: XX. mendearen bigarren erdian alemaniera estandarretik urrunago dauden hegoaldeko dialektoak dira berenetik gehien utzi dutenak; idazle batzuek eraiki duten *Southern Standard High German* delako eredia finkatuko eta gorpuztuko ote den oraino ikusteko dagoen gauza da (Anzenhofer 1998: 101).

Are bortitzagoa da oraino Danimarkan gertatu dena: herritarren % 5 mintzo da soilik sortu den alderdiko dialektoan, gainerateko danimarkar guz-tiak hizkeraz bederen kopenhagetartu dira. Mende honen bigarren erdian izugarri gertatu omen da hizkuntza-desberdintasun geografikoen apaltzea, dialektoak berdintzera jo da. Berdinkaratze edo «dialect levelling» prozesu horretan, ezaugarri estandarrak herrialde guztian gaindi hedatu dira, Kopenhagen mintzatzen den aldakirantz gertatu da konbergentzia (Kristiansen 1998).

Era berean, bizimoduaren homogeneousizazioa hainbat hiritan «urban variety» direlakoan nortasuna ere ahultzen ari da: Belgikako Brujasko hizkera urbanoa mendebaldeko flandesera orokorrak irentsi du, azken honek etorkia nagusiki errurala eta orain arteko erabilera suburbanoa duen arren (Taeldeman 1998: 16).

Euskararen kasuan estandarizazioaren garapena berriagoa da eta bere ondorioak, azterketa sakon eta sistematikorik egiten ez den artean, ezkutuko-agoak dira: hizkuntzalaritzaren ikuspegitik egin soziolinguistikako azterketez dihardugu, jakina: bestela esan, Oñederra 1992, Amorrortu 1995 edo Garmendia 2003 bezalakoez.

Hasi beharko dugu, bada, soziolinguistikako ikerketetan murgiltzen eta *parole* edo *performance* aztertzen duen hizkuntzalaritza egiten ere. Ez du honek esan nahi ohiko dialektologiako ikasketak gainditurik ditugunik edota

orain artean eta egunotan kanpoan egiten diren soziolinguistikako azterketa guztiak mimetikoki eta erarik mekanizistenean hona itsura egokitu behar ditugunik; ez horixe. Leku batetik bestera hizkuntzaren jokabide sinkronikoa eta hiztunen estrategietan, dela norbanakoaren aldetik nahiz talde bateko partaide gisa, berdintasun nabarmenak daudela Pernandoren egia esatea bezalakoa da: hiztun guztiak pertsonak dira ororen buruan. Baina egia da, bestalde, hizkuntza guztiak ez dutela egoera bera pairatzen eta hiztun guztiak ez direla presio eta indar soziolinguistiko berdinen meneko. Horrexegatik, euskararen azterketan erabil daitezkeen metodologiak eta bitartekoak, azterketaren helburuak eta euskararen egoerak eta izaera bereziak baldintzaturik beharko dute egon eta ez hor zeharko eredu eta gogoen arabera horrelakaturik.

Azken garai honetan euskararen barrunbe gehienetan gauzak aldatzen ari direla ez da anitz esatea; halaz guztiz ere, aldaketa horien deskribapen xehe eta zehatzak egitea gauza beharra dela adieraztea edo erakustea dagokigu arloko oi. Gauzak ez dira zuriak edo beltzak, berrikuntzak ez datoz beti iturri edo gune beretik, ez doaz beti-beti norabide berean eta ez ditu beti zio berberak eragin edo sortu; ez dituzte, gainera, leku guztietan edota hiztun-talde guztien artean emaitza berak izaten. Ikas dezagun jabetzen, gizarte-zientzietan bilakabideek eta gertakariak ez dutela kausa bakar bat izaten, koiuntura askotarikoaren inguruan gerta daitezkeela, kulturalak, historikoak, gizartekoak edo psikologikoak diren zioek eraginik. Dena ez da leku guztietan erritmo berean gertatzen.

Adibide inozo batek argitzen ahal digu kontua: esan daiteke zarautzar gazteek hein batez Zarauzko euskararen jarraipentzat jo dezakegun hizkera egiten dutela; mintzatzen direnean arreta pixka bat ezartzea aski da egiten dutena euskara batua ez dela jabetzeko. Zarautzen, orain artean Nor Nori aditz sailean oraineko aldaeretan lehen pertsonan *zat* & *zait* aukera izan da, hori da dialektologia-lanek dioskutena; egungo gazteari *zait* entzunen diozu eta «bai, gure aitak *zat* esaten du» ere kontatuko dizu. Bi aldaerak herrikoak izanik eta horietarik bat eredu estandarri dagokionez, ulertzekoa da egungo gazte zarautzarren aukera; halaz ere, entzunen diozu zarautzar gazteari *zaku-rik*, *zaigu*-rekin batera, baina bigarrena gehiago. Berebat, *erten* 'irten', *ostro* 'osto' edo *itxe* herrikotzat ezagutuko dizkizu eta etxean agian erabiliko ditu inoiz, baina Zarautzen gazteen artean nagusitzen ari direnak *atera*, *osto* eta *etxe* dira. Ordea, nork asma lezake *a priori* zer gertatzen ari den Azkoitian, are zer gertatuko den Azkoitian gazteen artean *-zat* 'zait' edo *zako* 'zaio' aldaerez dihardugu-, orain arteko herriko aldaera bat bakarra izanik eta eredu estandarrekoa ez bezalakoa? Ez dugu uste oraingoz gazte azkoitiarrak *zait* edo *zaio*-ra lerratuko direnik.

Zinez adierazgarria da Azpeitiko kasua³. Herri honetan euskara indarrean dago eta ez diogu hau erabileraren mailagatik soilik; corpusean ere bizitasun nabarmena sumatzen da. Auzotik auzora handixkoa eta, beraz, aberatsa da dagoen aldea eta hitzunek aise bereizten dute pertsona bat zein auzotakoa edo ondoko zein herritakoa den. Azpeitiko bereko hizkeraren transmisioak etenik ez du, bestalde. Ez dago ia jauzirik gazteen eta helduagoen arteko hizkeran, oraindik ere eredia etxekoa da eta horixe da kalean nagusitzen dena, herrikoa, Azpeitiko berekoa. Ez da Urola aldeko koinerik; lagunartean, kalean, Azpeitiko egiten da. Adierazgarria da, dena den, gazteen artean desberdintasunak egotea ere; aipatu digutenez, baliteke horrelako zerbait ere gertatzea eta honek Azpeitian berean gazteentzat adierazgarri edota talde-senaren emaile diren aldaerak daudela adieraz lezake, hizkuntzaren osasuna ona dela, alegia.

Etxeetan adinekoek sobera berria dena edota makur esana zuzentzen dute: aittittek, esaterako. Azpeitiko hizkerak errealtateak behar duen ele bat falta duenean, batuko lexikora joko du gazteak agian, baina sistema fonologikora guztiz egokiturik: *geltokiye*, *udaletxie*, *argazkiye*... Dena den, nahastekotan erdara nahasten da, ez Azpeitikoak ez diren beste hitzak edo maila goretako mintzoak. Lepo erabiltzen omen da gazteen artean galderetarako *jute al gea?* / *ite al den?* makurra. Agian *adibidez* hitza nagusitzen arituko da batzuen artean *gonbaaziyo batea* / *konpaaziyo batea* horren kaltetan, gazte batzuek *ezgendun* erabiliko dizute *ezkendun*-en ordain, baina oro har herrikoa berekoa da gazteek egiten dutena: *ostrue*, *ankie*, *narruzko txupie* 'larruzko jaka', *ikixi* 'ikasi' erabiliko dituzte. Horrez gain adiskideen artean batua erabiltzea edota zuka jardutea ezin pentsatzekoak ditugu eta *s* eta *z* fonemak bereiztea ere irrieragingarritzat jotzen dute bertako gazteek; gaztelaniaz ere neutralizazioa bizkarkariaren alde gertatzen da, ez apikariaren alde. Apikaria, inoiz erre-zildarrei adarra jotzeko erabiliko da.

Guztiz bestelakoa da Hondarribiko egoera⁴. Hondarribian eragin handia izan du bertako euskararen kanpotik herrira bizitzera etorri direnen kopuruak; hauetarik anitz Irun erdaldunetik etorriak, gainera. 1996an biztanle guztietarik %46'3 baizik ez ziren herriko seme-alabak. Gazteen artean egun eredu batua entzutea –euskaraz ari direnean– ez da harritzeko gauza: *faki yaiz* eredukoak txantxetan edo bezala erabiltzen omen dituzte inoiz.

³ Datuak Izaro Egiguren Bastida eta Maitane Elorza Zubimendiri esker eskuratu ditugu.

⁴ Zinez egokia gertatu zaigu Txomin Sagarzazu bertako hizkuntzalariaren argitaratu gabeko "Hondarribiko hizkeraren aurkezpena" hitzaldia, Hendaia Zokoburun 1997ko urriaren 17an emana.

Bertako institutua ongi ezagutzen duen Juan Antonio Letamendiak dioskunez euskarazko irakaskuntzak eta alfabetatzeak, Hondarribiko gurasoak dituzten gazteek etxeko hainbat aldaera galdu eta ordezkatu izana eragin du; arruntak ziren duela bi hamarkada honelakoak ikasleen idazkietan: *dire*, *digu* ‘dugu’, *urayek* ‘haiek’, *ibatzi*, *ekuxi...*, baina egungo idazkietan ez da ageri honelakorik. Duela bi hamarkada euskara asignatura bat baizik ez zuten ikasle anitzek eta oinarria etxekoa berekoa zuten; egun gehienek dena euskaraz ikasten dute eta herriko aldaerarik ez da ageri beren idazkietan. Ikasgeletan ahozko hizkera guti landu izana da irakaskuntzaren beste akatsetarik bat. Esan gabe doa, salbu hondarribitarrak, irakasleak Euskal Herri guztiko hainbat herriakoak izan direla. Nafarroako Arantzan, esate batera, haurren gurasoak kexu dira, baizik eta maisu-maistrek erakusten duten euskara ez dela herrikoa. Halaz guztiz ere etxeko eta lagunarteko hizkuntza-oinarriak sendo dirau Bortzirietako herrixka honetan.

Gipuzkoako Goierriko Zaldibiko hizkuntza-unibertsoa aztertzen diharduen Larraitz Garmendia Munduatek dioenez (2003), herri honetan adina eta beharbada arauarekiko hartu-emanak dira hizkuntza-aldaketa soziolinguistikotarako eragingarrienak. Haren lanean ez da aztertzen euskara estandarrak zertan eragin dion Zaldibiko egungo folk hizkerari, baizik eta euskara batuak sortu aitzineko garaiko belaunaldien arteko hizkuntza-etenak zein diren. Honela, azentukeran 80 urteko jendearen belaunalditik 50-60 dituenarenera aldaketa dagoela ohartu da ikertzaile zaldibiarra. Zernahi ere den, Zaldibiko hizkuntza-unibertso hori xeheki eta soziolinguistikoki aztertzean –baserria vs. kalea, auzoak vs. herriko gunea, euskaraz alfabetatuak vs. alfabetatugabeak, emaztekiak vs. gizonak, gazteak vs. helduak vs. adinekoak...–, garbi ikusiko dugu zein berrikuntza, zein aldaketa eta zein iraultza dagokion euskara batuari, zer dagokion batua etorri aitzineko euskararen berezko bilakabideari eta zer dagokion zeri.

4. ADBERGENTZIAREN EREDU DIGLOSIKO BERTIKALA

Mende honetako gizarte-aldaketa sakonek eta modernizazioaren urratsek herrien kulturaren berdintze eta homogeneizatzeko nabarmena eragin dute. Honela, Europako hizkera-erkidetako gehienetan eredu estandarrak lekua irabazi du ordura artean dialektoan baizik mintzatzen ez ziren hiztunen erreperitorioetan. Prozesu hori Europan ez da goizetik arrats gertatu, mailaz maila baizik: denboraren poderioz, geografian gainti, hizkeren barrenean, hauen egituretan zehar.

Halaz ere, Euskal Herrian ez da zail bereiztea herri-euskaratik bestera –besteetara– egiten den jauzia noiztsu gertatzen den. Hein batez euskararen berreskuratzearekin lotu behar da prozesuaren hasiera, baina nagusiki «literatura-euskara» izenarekin jaio zen euskara batuaren sorrera jotzen da inflexio-puntu nagusitzat. 1968a baino lehen euskara etxean ikasi zutenek eta idatziz landu ez zutenek, horiek, oro har, herri euskara egiten dute, batzuek hobeki, besteek makurrago, erdararatuago, mugatuago. 1968.aren ondoren ikasi edo idatziz landu dutenek, horiek zaku konplexuagoa eratzen dute, eta portzentaiaren eta prestijioaren berebiziko garrantzia dute.

Esan ohi da, gainera, tradiziozko hiztunek, euskara estandarra berandu ezagutu dutenek, halakoxe gutxiespena edo jasan dutela eta prestigioa hizkera eredu berriek hartu dutela. Errealitateko atal gehienek bezala, badu horrek egiatik zer bait, baina baita mitotik ere. Beti egon da, are 1968 urtearen inguruan ikasi zuten euskaldunberrien artean ere, folk hizkera ikasteko eta menderatzeko borondate izugarria, izan ere horrexetan baitzetzan «benetako» euskaldunen artean integratzeko baitezpada gainditu beharreko langa. Eta alderantziz, beti izan dira eta izanen ere, oraingoz, herri-euskara ez den oro betertzez dakusaten euskaldunzahar analfabeto handiusteko gogaikarriak, euskara batua «español» edo «gipuzkoanoa» baizik ez dela diotenak. Tradiziozko euskaldun ahalketuen gaia ere ez dabil honetatik urrun eta arazoa Euskal Herrian nonahi ageri zaigun arren, berebizikoa da Nafarroa Garaiko kasua. Baztangoa egoki deskribatu du Kasaresek⁵:

64 urtetik gorakoek (%80a euskaldun) gutxiagotze prozesu historikoa bizi izan dute, bere hizkuntzaren baliorik eza eskola, administrazioa, hezkuntza eta antzeko zerbitzuetan... Euskararen indargabetze publikoa bizi izan dute bere herrien izenetan, kaleenetan, bere izenetan bertan; eta ez zaie arrotza erdara behar bezala ez menderatzeagatik lotsa sentitzea. Hiztun hauek euskara baserri-giroarekin lotu dute, atzerapenarekin, etxeoarekin, eta beraz, gaztelera hiriarekin, modernotasunarekin eta bizitza publikoarekin. Badute, dena den, euskararen ezagutza sakon eta aberatsa –aldaera dialektalarena– eta aldaera hauetariko askoren izaera berezia belaunaldi honekin batera galtzeko zorian dago. Multzo honetan ditugu elebakar funtzionalak, hizkuntz gaitasun handieneko hiztunak, ahozko kultur transmisioz jasotako euskara dutenak. Hauek ez dute idatziaren kulturak ekarritako aldaera estandarrik ezagutu. Euskaraz alfabetatugabeko hiztunak dira, euskararekiko motibazio naturala dutenak (ondoan menperatzen dutena da) (1999: 83).

⁵ Aezkoan euskararen inguruko autogorrotza kasu oraino larriagoetara iritsi da (cf. Camino 1997: 111-137). Lan klasiko bat nahi izanez gero, ikus Macaulay 1975.

Gaineratekoan, gure zaharrek bizi izan ez duten fenomeno bat egokitu zaigu gazteago garenok: egiturazko eragin garrantzizkoa izan du euskara batuaren etorrerak tradiziozko edo oinarrizko euskalkietan, folk hizkeran. Konbergentzia bertikala gertatu da herri-euskaratik eredu estandarrerantz, egituretan asimilazio batzuk gertatzen ari dira emeki-emeki: dialektoak beren ezaugarri bereizleak galtzen ari dira eredu estandarrarenak edota subestandarrenak hartzen dituztelarik. Mattheier-ek esanen lukeenez (1996: 34; in Auer 1998: 1) euskal hiztun anitz adbergentzia prozesu batean sarturik gaude. Honela, eredu estandarrek hizkera guztiari eragiten die, antzeko norabidean eragin ere; euskal hizkeren diasistema, mendeetan zehar desberdinduz joan eta gero, soilduz eta homogeneizatuz doa orain.

Soilduz doala diogu, baina behar diren salbuespen guztiak eginik: dialektoen arteko berdinkaritze orokorrak hizkera baten barreneko egiturak konplexuago bilakatzea eragin dezakeela gogoan hartu beharreko errealitate frogatua da (Gilles 1998: 78-9). Ez dezagun ahantz hizkuntzen arteko ukipenak frankotan konplexutasuna dakarrela.

Ereduak nahastea ez da beti gauza erraza izaten, osagaien arteko konbinazioak ugaltzeaz gain *inventarium*-ak ere emendatzen baitira. Rosa Gandarias hizkuntzalari gernikarrak adierazi digunez –ahoz esana–, berarentzat zail da euskara batuan ‘neska etorri da’ bezalako zerbait esatea; nornahiri bitxi gertatuko zaio hori esatea zail dela entzutea, baina ohartu beharko genuke prosodian aldaketa gaitza dagoela lehen hitz horretan sortzezko hizkeratik eredu batura, hiru silabatatik *-neska + -a*, azentua kokatzeko eredu barnebitara jauzi gogorskoa baitago, gogoan izanik, gainera, hitzak bata besteari kateaturik oguzten ditugula eta ez banaka-banaka; ikus honexetaz (Elordieta, Gaminde & Uhalde 1998: 404). Dramatikoak iruditzen zaizkigu EITB-ko euskara arduraduna den Igone Etxebarriaren eleak ere:

...hau da, zenbat eta norberaren hizkera, baturako aukeratu diren formatik urrunagokoa izan, orduan eta gaitzago batuaz ondo moldatzea. Arrazoi horregatik beragatik, sarritan euskaldunberriek ere esaterako bizkaitar euskaldunzaharrek baino itxura hobea ematen dute (1996: 551).

Hizkera anitzek ez dute kemenik indar orotariko, bertikal eta prestigiozko honi aurre egiteko; hain zuzen ere, euskara eguneroko bizitzan errotuen dagoen herrietako hiztunak dira betiko euskarari hamarkada batzuetan gaindi bederen eusten ahal dioten bakarrak, bene-benetako «hizkera-erkidego bizia» osatzen dutenak. Konparazio baterako: ondarrutar gazteak, azpeitiarrak, arantzarrak... Horiexek dira, beste batzuen artean, egunero-egunero eta ia-ia gai guztien gainean euskaraz mintzatzen direnak, soilik maila oso jantziko gaietarako euskara estandarreko –erdarazko?– kera eta ele batzuk darabil-

tzatenak; gaineratekoan, bere-berezko herri euskara egiten dute aldioro, erre-gistroen aberastasunean eta konplexutasunean adineko hiztun erkideen erabil-lerarekiko soilte eta laburbide batzuk hautatu dituzten arren.

Zergatik aipatzen ditugu, bada, gazteak? Egungo soziolinguistikan itzali-takotzat jotzen da gazteek erabiltzen ez duten dialektoa. Eskualde edo gune bateko bereko gazteriak hizkera edo dialekto bat erabiltzen ez duen unetik beretik, dialekto hori hiltzat jotzen da. Euskal Herrian baditugu honelako hamaikatxo eredu, alderdi batetik bestera aldeak eta aldiak dauden arren. Belaunaldien arteko hiatusaren arloan dialektoak bizirik dirauen inguruneetan hizkuntza-aldaketa hasikin interesgarriak aurkitu ditu azken urteotan Iñaki Gaminde hizkuntzalari aspergaitzak Zumaia, Getaria edo Bermeon adineko-en eta gazteen hizkera azterturik.

Esan ohi da oinarrizko dialektoa adineko jende ez mugikorren mintza-tresna dela; Euskal Herrian erkidego lokal hori euskaraz eskolatugabea da gai-nera. Gure herri anitzetan hortik behehitiko hiztunek dialektoa ez den beste eredu edo hizkera konplexuago, hibridoago edo nahasixeago bat darabilte.

Suediera mintzaten den Finlandiako adibide bat ematekotan, esan gene-zake Ostrobothnia eskualdean bizirik dirauela dialektoak eta zahar nahiz gazte, folk hizkeran mintzo direla. Aldiz, eta Finlandiako suedieraren gaitik irten gabe, Aland, Aboland eta Nyland hirietan, 1965 urtea baino lehen mun-dura sortu hiztunek bertako dialektoa egiten dute, baina geroago sortuek regiolektoa darabilte (Ivars 1998: 108). Hirietan ere gauzak aldatuz doazela sinestekoa da: badakigu Finlandiako hiriburura suomiera mintzo duen jende andana gaitza iritsi dela azken urteetan eta horretatik hizkuntza-aldaketak itxaron daitezkeela⁶: «Coloquial Helsinki Speech» lagunarteko eredu edo aldakia sortzen ari da orain, akademikoek arauaren aurkakotzat jotzen dute-na; hizkera berri hau beste hiri batzuetara hedatzea ere adierazgarria da.

Euskal Herriko eremu batzuetako berriak eman ditzakegu egungo egoe-raren erakusgarri: ertzetik has gaitzke, Zuberoatik, J. L. Davant idazlearen eleetan oinarriturik:

Orokorki: batuaren eragin nabarmena du gaurko zubererak hiztegian eta grafian, belaunaldi nahiko berrietan bederen (1996: 534).

⁶ Aldakortasuna —sinkronikoki— eta aldaketa —diakronikoki— hizkuntzan elkarren ondoan ageri zaizkigu. Hizkuntza-aldaketak aldeztatik aurretik hizkuntza-aldakortasuna bai-tezpadako du, baina hizkuntza-aldakortasun egoera batek ez dakar beti eta nahitaez bere-halako hizkuntza-aldaketa.

Deba arroko berriak interesgarriak dira. Ibarrari dagokionez herri bakoitzeko hizkeraren aldeko hautua ageri zaigu J. M. Elexpuru bergararraren aldetik:

Herri-euskara, adineko jendearen ahotan oraindik indartsu badago ere, gainbehera dator, eta ez gatz ez berakatz duen hizketa hibrido bat, ez batua ez euskalkia, nagusitzen ari da eskualde askotan, belaunaldi berrien artean.

...Aho-hizkuntza biziari eustea da helburua, aho-hizkuntza prestijiatzea, aho-hizkuntza oso erreferentzia inportantea (ez bakarra) dela sartzea jendearen buruan. Bere berbetaz harro sentiaraztea, eta ez konplejuz blai, askotan gertatzen den bezala.

Deba-arrotik begiratuko dut (eta neure ikuspegitik, jakina, han ere den-denok ez gatzelako bat). Nortasun handiko herriak ditugu gure eskualdean, euskara aldetik diferentzia nabarmenak dituztenak. Ez dugu Deba-arroko euskara baturik nahi; herri (edo *berbeta-eskualde*) bakoitzak bere euskara mantentzea litzateke helburua. Baina beti ere amankomuna denari indar gehiago emanez, bereizten gaituenari baino (Elexpuru 1996: 523-5).

«Deba arroko euskara baturik» ez gertatzea da idazlearen helburua; ez dugu garbi ikusten nola lor daitekeen herri edo berbeta-eskualde bakoitzak bere euskarari euste hori, bereizten duena baino gehiago batzen duena indartzen baldin bada; non eta ez zaigun argiago azaltzen, gu bederen ez gara ulertzeko gai. Gure nahi eta ezinaren diskurtso anbiguo honetan, euskararen batasunarekiko leialtasuna eta hizkeraren guztizko kontserbazioaren aldeko amets idilikoa uztartu ohi ditugu euskaldunok; eginahalak, ordea, trapezistaren eta are ekilibristaren tankerarik gorrienean uzten gaitu ezinbestean nonahiko euskaldun batzuok eta besteok.

Euskara batuaren alde egotea eta euskalkien alde ere egotea gauza bat da eta horretan ez dago zalantzarik 68an haur batzuk besterik ez ginenontzat bederen. Garbi ikusten ez duguna, batua ez diren hizkerak idazteko ere arau bereziak finkatzen hasi behar hori da. Estandarra ez den alor honetan, norberak nahi duen bezala eta senak edo intuizioak agintzen dion legez jarduteko aukera edukitzea ikusten dugu biderik egokiena. Zenbat idatzizko eredu ikasi behar ote ditugu, bada, euskaldunok? Hitzun eta aldi berean filologo izan behar ote dugu euskaldun guztiok, euskalkian idaztean zer erabili eta zer ez jakiteko? Dialektoak, era jasoan nahiz lagunartekoan, berdin balio dezake elkarrengana biltzeko nola besteatarik bereizteko, non nola, noiz nola: aurkako pentsatzea hitzuna eta taldea eta beren ezaugarriak aintzat hartu nahi ez izatea da.

Iritziak, dena den, era guztietarik dira: K. Zuazoren *Euskararen sendabellarrrak lanean* (2000) euskalkiak era jasoan idazteko ere euskara batuaren izpi-

rituaren irizpideak jarraitu behar direla adierazten da eta ikuspegi preskriptibotik «Euskalkiak erabiltzeko oinarritzko arautegia» aurkezten, nahiz arau horiez ez den gero argudiatzen. Ordea, Kike Amonarrirek euskalkien erabile-raren arautzeaz zalantza ageri duenean eta euskalkien zirkulazio librearen ideia aipatzen duenean (*Argia* 1850, 17. or., 2002/IV/21) K. Zuazok arrazoa ematen dio (18) eta *Euskararen sendabelarrak* liburuko kutsu preskriptibotik saihesten da; garai beretsuko lan batean ere euskalkiari eta norbere herriko hizkerari arau zehatzak eta zorrotzak ezartzearen aurka ageri da ikertzaile eibartarra (2002: 50) eta 2000. urteko lanean ez bezala –cf. euskara nafarreko instrumentaleko -s morfemaz dioena (185)–, euskalkiarentzat muga jakin bakarra zuzena dena eta zuzena ez dena bereizi beharra aldarrikatzen ditu.

Jo dezagun orain Sakanako eskualdera: hizkeren arteko lehia-egoera aurkezten digu bertako I. Mundiñano irakasleak eskualdeko aldizkariko ereduaren berri emanez:

Sumatzen genuen hutsunea bazegoela gaur egungo gazteen eta herritar askoren artean. Herriko hizkera jakin, euskaldunzaharrek badakite, baina ikastolatik pasatzen diren oraingo jenerazioen eredia da erdi batua, erdi herriko hizkeraren nahasketa bat.

...*Guaixe* aldizkaria sortu zenean, herriko hizkeraren aldeko apustua egin zuen, zenbait herritako berriak herri horietako hizkeran egiteko... egin genuen holako hibrido txiki bat edo. Gure helburua zen herriko hizkerak ahalik eta fidelen agertzea orrian, eta bestetik euskara batutik edo batua deitzen dugun horretatik ahalik eta gertuen egongo zen sistema bat (in “Nafarroako hizkeren azterketa eta euskara estandarra: Euskalerrria Irratiko mahai inguru”, I. Camino (arg.), 1998: 173).

Adierazpenok, azken batean, gure herrian hainbat eta hainbat euskaldunek etxean beti entzun duten hizkeraren etorkizunaz eta hizkuntzaren osasunaz eta kalitateaz sentitzen duten kezka erakusgarri dira. Kezka hau, gainera, handiagoa da erdialdeko hizkeretan oinarritu zen euskara estandarrikiko dibergenteagoak diren hizkeretako hiztunen artean. Hiztun hauek beren haur denboran nagusi zen mintzoak idatzizko erudian leku guti duela argi dakusate eta jabetzen dira mintzo hori agian apurka-apurka aldatuz joan dela, kolorez eta berezitasunez gabetzen eta litekeena dela gaztetxoaren artean denbora joan arau beste hizkera berri eta berenetik desberdin bat nagusitzea.

Adierazi dugu herri-euskaratik urruntzeko prozesua ez dela leku guztietan berdin gertatzen. Erkidego batean bertako hizkera guztiz bizirik eta indarrean dagoenean belaunaldi batetik bestera aski ongi transmititzen da folk hizkera eta aldaketa ez da horren nabarmena. Etxean, kalean, gizarteko hainbat hartu-emanetan eta lagunartean herriko euskara da erabiltzen dena eta ez da

zalantzan jartzen ereduaren balioa edota egokitasuna. Litekeena da, gainera, herri-hizkeratik eredu estandarera dagoen jauzia berebizikoa delako, oraingoz herrikoa kutsatu gaberik egotea, zubigintza zaileko bi sistema desberdin izaten jarraituko balute bezala.

Beste leku batzuetan, ordea, ordezkatzearen erritmoa biziagoa izan da: nabarmena da hau hizkuntza bera galtzeko zorian izan den alderdian. Nafarroa Garaiko Pirinioen inguruko Aezkoa ibarrean, esaterako, gibelamendu gaitza jasan du euskarak gizaldi honetan, baina bertako bizilagunak garaiz ohartu dira eta azken hamarkadetan berreskuratzearen giltzari gogor eragin diote. Etxe ia-ia guztietan transmisioaren katea etenik egon denez, belaunaldi batek bederen huts egin du eta herri-euskara apitxi-amutxendako gelditu da, bilobek eskolan eredu batua ikasi dutelarik. Aezkoako «uskara» berpizteko gogo eta sentsibilitatea dagoen arren, nekez gertatuko da hori aetzen artean. Euskara batua dirudi dela Aezkoan etorkizuna duena eta ez hango bereko mintzamodua.

Ikusteko dago Euskal Herriko hainbat bazterretan sortzen ari den euskara berri horrek nolako kolorea(k) eta zein ukitu izanen dituen. Hizkera-erki-degoaren osasun ona lagun eta herrian «beti!» egin den mintzoak polarizaziorako eta bereizteko duen gaitasuna baliatuz, hainbat hizkerak gogor eusten ahal diote beren berezko kolore lokalari oraingoz; eskualdeko nortasunari edota herrikoari garrantzia eman ohi zaien alderdian gertatzen dira horrelakoak. Norberaren herriko hizkeratik eredu berri eta estandarre(ta)raino, gainera, alde ederra dago leku batzuetan, bateko eta besteko hiztunek beren gizarteko hartu-emanen eta erreferentzien arabera ibiliko dutena edo ez dutena. Honela, betiko herriko euskara edo «mild local dialect» izendatzen denezik «locally coloured standard» delakoraino tarte zabalean hainbat eta hainbat errealitatek eta hizkeren arteko konstelazio bitxiak lekua izan dezakete⁷. Hori da, gu ohartu orduko, egungo euskarari gertatzen ari zaiona.

5. HOMOGENEIZAZIOAREN OLDARRA

Dialektoei eusteko borondatea, nork berea duenari eusteko gogo, guztiz ulertzekoa da. Baina aurkiak ifrentzua eraman ohi du berekin. Euskalkiak egoera sozio-historiko jakin batean sortu zaizkigu, euskal erkidegoen arteko hartu-emana gaurkoa baino ahulagoa zen garaikoak dira: lehenago herrixkak

⁷ Izendapenok Kristiansen-en lanetik hartu dira (1998: 125).

elkarrengandik gaur egun dauden baino bakartuago eta urrunago zeuden, hiriburuek eta indar homogeneousatzaile handiek egun duten baino indar eta kultura-hedadura murriztagoa zuten eta herrixkek aiseago garatzen zituzten beren ezaugarri bereizgarriak eta errazago eusten zieten hauexei aldameneko beste erkidego batzuen aitzinean; administrazioa bera ez zegoen egun bezain garaturik. Euskal Herriaz kanpokoak ziren kultura-hedadura mota batzuek Euskal Herriaren barrenean egon zitekeen kultura-batasuna etengabe arrailtzen zuten. Ematen du banaketa, besteetarik saihestea, zatiketa, dibertsitatea, mikronortasuna... garai batean aiseago gerta zitezkeela orain baino.

Dialektoen errealitate sozio-historikoa aldatu bada, gizartea bera ere aldatu delako da neurri batean. Gaugero ez gara lehen bezala bizi, atzera ezinezko abiada darama homogeneousazio oldar honek leku anitzetan. Dialektoak ez dira sortu egungo gizarte-egoerari erantzuteko, horretarako hizkera estandarriagoa eta homogeneousoagoa dago. Lagunarterako eta herri barreneko eguneroko jarduerarako balio du herriko hizkerak euskarak indarra duen lekuetan. Hortik goiti literatura edota familia ditugu tradiziozko euskalkietarik edateko.

Familiako giroa ere aldatu da arrunt; aitetamek, biek etxetik kanpo lan egitea eguneroko ogia bilakatu da eta gero eta kide gutiago izaten dira egungo familietan; lehen, transmisiorako funtsezkoak ziren aiton-amonak edota osaba-izebak. Hauek, gainera, eta gurasoak ere berdin, euskaraz eskolatuga-beak izaten ziren eta haurrak etxeko euskara ikasten zuen: eskolan erdara ikasiko zuen funtsean. Egungo haurrak, kasurik hoberenetan lehen urteetan familian herriko euskarari haziak diren arren, eskoletan eredu homogeneousoak erabiltzen dira eta kodeen arteko nahasketa eta gurutzaketa folk ereduaren urtze eta itxuragabetzearen aitzindari gertatzen da. Euskal Herriko hainbat gunetan salbu, oso zaila da gaur egun haur euskaldun gehienak herriko bereko euskaraz ongi jabetzea eta etorkizunean interferentzia handirik gabe erabiltzea eta transmititzea. Hainbat bazterretan euskalkien aldeko saioak egiten diren arren, elementuen benetako dimentsioaz jabetzean ohartzen gara egiteko honetan atarramendu ona ateratzea zein nekeza gertatzen den.⁸

Orain arteko euskal hiztun arruntak oro har ez mugikorrek genituen, baina egungo gizartean hiztun arruntek gizarte-sarea edota gizarteko hartu-emanak konplexuagoak dituzte lehen baino, gizartea bera konplexuagoa, bilakatuagoa eta lardaskatuagoa delako. Ezagutzen ditugun Nafarroako Pirinioen

⁸ Udako Euskal Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Sailak hala eskaturik, Bergarako herri-hizkera eta ahozketasuna bultzatzeko egitasmoaren berri eman zuen Estepan Plazaolak Iruñean 1999ko uztailaren 27an. Oro har Bergarako gaztetxoek euskararen kalitatea zaintzeko helburua ere aurreikusten du aipatu egitasmoak.

inguruko herrietan alde handia dago ikasketak herritik kanpo Iruñean egin dituzten eta herrian berean egin dituzten egungo gizon gazteen gaztelanian. Desberdintasun nabarmenak gerta daitezke ikasketak Iruñean egin dituen batengandik herrian berean eta beraz maila apalagoan egin dituen bere anaia-rengana. Herrian familiaren eta tradiziozko lanen eta hizkuntza-ohituren inguruan bizi izanak edozein pertsona markatzen du, ikasketek eta Iruñeko kultura eta giro urbanoagoak loturik daramatzaten hizkuntza-erek markatzen duten bezala.

Familiaren bidezko euskalkiaren transmisio ziburra, aitetama euskaldun alfabetatugabeak, eskola erdarazkoa, Euskal Herri batuaren ideia arras lausoa eta ahozkotasunean oinarritutako euskal kultura edukitzetik guztiz beste egoera desberdin batera iragan gara: familiak ez du lehen zuen garrantzia haurren heziketan; egun hainbat guraso euskaraz alfabetatuak edota erdaldunak dira; gurasoen arteko kideetarik bat ez da bizi diren herrian sortua; eskola-ikastoletan euskara batua erabiltzen da gehienik; bere lausoa ere, euskaldun anitzengan badago Euskal Herri batu baten izpiritua; euskal kultura idatzia ere, zailtasunak zailtasun, aitzinatuz doa emaro-emaro; azen ontzeko, egunerokotasuna mundu guztian zehar homogeneoagoa bilakatuaz doa eta ikus-entzutezko hedabideek ere lehen ez zuten garrantzia dute orain. 1968tik aitzinera euskara batua deitzen dugun tresna hori ere badugu euskaldunok, eta ezin ahantzi da ordura artean euskaldun anitz elkarri ezin ulertuz zebiltzanetan erdaraz mintzo zirela ezinbestean; honetan, dirudienez, gauzak pixkatxo bat aldatu eta bideratu dira.

Pentsa ote dezake oraindik norbaitek guztiz intimoak direnez edota senideen inguruko egoera batzuek kanpo dialektoek orain artean bezala beren ezaugarri guztiekin aldaketarik gabe iraun dezaketela? Are herriko bereko hainbat egoeratan, dialektoak ez du gaurgero balio, hainbat eta hainbat errealitate kontzeptual eta tekniko geure gogoak euskalkitik guztiz disoziatuak dakuskielako: kultura eta ohitura kontua baino ez da hau, egia esan behar baldin bada. Berdin-berdin gertatzen da beste hizkuntza batzuetan eta bereziki gurea bezalako hizkuntza txiki edota eremu urrikoetan.

6. EUSKALKIEN ETA ESTANDARRAREN ARTEKO LASTERBIDE- EZ: DIAGLOSIA

Folk euskara galtzen ari den herriez esan ohi dugu, guztiz makur esan gainera, adineko hiztunek, besterik ez dakitenez, euskalkiari eusten diotela eta

gazteak eta etxe zokotik ateratzen hasten diren haurrak euskara batuan mintzatzen direla. Koxka, dena den, orain arteko tradiziozko hizkera dialektal horretatik saihesten diren hiztunak zein mailatako itsasoetara murgiltzen ari diren jakitean datza. Bestela esan, ez da egia euskaltitik edota gure herriko hizkeratik euskara batura zuzenean eta zeharbiderik gabe iragaten garela. Batek baino gehiagok hori dioten arren, hemen ez da hori gertatzen ari, ez dugu uste gertatuko denik eta beste leku anitzetan ere ez da horrelakorik gertatu. Ez dihardugu hemen Lizarran, Gasteizen, Iruñean edo Bianan sortzen ari diratekeen batuaren antzeko hizkerez. Baionako berri Davantek ematen digu: «Baionan erakasleak badira E.H. barnetik ere, beraz nafarro-lapurteratik abiatzen dira nagusiki» (1996: 535).

Lasterbide, zidor eta erdibide ugari eta lotura konplexuagokoak dira hemen gertatzen ari direnak; literatura-ereduen eta herri-hizkeraren arteko eskualdeko hizkera edo «regiolekto»-en ezaugarriak lerro-lerro emanez euskara molde berri eta aldakor horiek definitzea ez legoke txarki beste leku batzuetan ikuspegi diaskopikoa aztertzen den garaiotan:

Il s'agit d'une étude typologique du dialecte, qui s'intéresse particulièrement à ce qui le différencie de la langue avec laquelle il est (en principe) dans un rapport de diglossie. La "diascopie" réside dans l'analyse transversale des structures du dialecte (système socio-communicatif) et dans la confrontation avec la langue de superposition (Swiggers 1997).

Ezin, beraz, gure herrian desberdin izan; zer dela eta gurean besteetan ez bezalako gertakariak?

Datu zehatzak izatera lasterbide horien guztien norabidea ea beti-beti batu/estandarrezkoak ote den hobekixe jakinen genuke; berebat, erritmoen eta prozesuen sakontasunaren mailen berri ere izanen genuke. Aldaketa-prozesuan dagoen hizkera baten norabidea guztiz garden ageri ez den kasurik balitz, aldakortasunaren beraren egitura sinkronikoa aztertzeko eta gerta litezkeen arau plurizentrikoen etorrera eta beren arteko lehia ezagutzeko aukera edukiko genuke. Bi zentzutan plurizentrikoak, gainera: batetik, hizkera batera iristen diren hizkuntza-aldaerak hedagune batetik baino gehiagotatik iristeko aukera legoke. Eta bestetik, hizkuntza-ezaugarri bat eta bera -paradoxikoki, euskara batuari ez dagokiona- berez ageriko lotura argirik ez duten bi hedagunetatik aldi berean hedatzekoa, elkarrengandik urrun dauden bi eremu horien artean bestelako konstelazioak daudelarik zentro edo guneei dagokienez.

Egun lagunartean entzuten dugun euskara maiz ez da ez estandarra ezta herri-hizkera ere, tarteko zerbait baizik: hor zehar kurri dabilen subestandar

bat den, regiolekto bat den, dialekto antzeko aldaki bat den ala zer ote den jakiteko, ordea, deskribapen onak behar ditugu, baina oraingoz honelako lan guti egin da Euskal Herrian. Euskarari buruz ideiak garbi izatea ere komenigarria litzateke; hor zehar beste hizkuntzetan gertatzen denaren berri ezagutzea ere on da, nonahiko kontzeptuak gurera mekanikoki txertatzeko desira guztietarik urrun, beti ere.

Beren dialektoa dagokion jatorrizko eremuan aktiboki egiten duten hiztun batzuek, berena ez den beste bat ezagutzen edo ulertzen duten unetik beretik hasten ahal dira hizkuntza-aldaketaren hazitzat eta hizkeren arteko berdintzearen abiaburuztat jo daitezkeen mailaz mailako bilakabideak; azken batean, berena ez den dialekto bateko partaide pasiboak dira. Ez dute erabiliko beren herrian auzoan ikasitako aldaera nabarmen eta markaturik, beren hizkerako errepertorioan ez dagoen fonemarik, baina gaiak edo testuinguruak lagundurik beti iragazten da zertxobait belaunaldi batean ez bada hurrengoan.

Aldameneko eremu horrek gizartezko onespina baldin badu –lanbidea eskaintzeko aukeraren aldetik, kulturarenetik, izpiritu politikotik– edota bertara maiz joan beharra gertatzen delako –hiririk hurbilena hor dagoelako, biztanleei osasunbidea hor jasotzea dagokielako...–, espero izatekoa da aldamen horretako hizkuntza-aldaeratarantz jotzea: nongoa den ez dakigun euskaldun batekin gertatzean, hizkuntza-maila apurtxo bat jasotzea komeni dela pentsatzen denean, hiztuna egoera bereziren batean gertatzen denean... Esate batera, nabarmena da «ez mugikor» ez diren Nafarroako Bortziritako hainbat eta hainbat gizon euskaldunek bertakoa ez den euskaldun baten aitzinean Gipuzkoako mintzorat duten joera; ez dakigu hemen hizkeraren prestigioa den aipatu beharrekoa edota moldatzeko eta konpontzeko eskaintzen duen egokiera; biak batera, agian? Duela franko urte Bautista Madariaga bertsolari arantzarrak Basarri bertsolari giputzaren irratia saioetarako erakusten zigan mirespena ongi gogoan dugu: ikus beronen «Nere bordatxotik» idatzizko sailaz I. Aranbarriren iruzkina (1999: 157). Itxura guztien arabera ekialdekoago diren eta muga administratibo nagusiaz eskuinekoak diren hizkeren isurira dago moldaturik orain arteko Bortziritako euskara, baina egun aurreikus daitezkeen etorkizunak ez du honelakorik ikusarazten eta berdin-berdin mintzo dira Fraile & Fraile (1996: 236) eta Zuazo (1997: 419-420) Oiartzun alderdiko hizkeraz ere; herri honetan nabarmenagoa da, gainera.

Dialektoen arteko eragite edota berdintze horretan badu zerikustekorik hizkuntza-heriotzak ere: behin Urraulgoiti, Artzibar, Erroibar, Auritz erdaraturik eta euskara Aezkoan indarra galtzen hasirik, bizibidea artzaintza duten mende honetako gizon orbaizetarren konbergentzia era oro Garazi aldeko

«eskuararat» gertatu izanak edota Aurizko hondarreko euskaldunek Luzaideko erak bereganatzen hasi izanak ez du inor harrituarazi behar. Dena den, adibide hauek euskara batua sortu aitzineko gertakarien honddarren sailan sartzekoak dira.

Itzul gaitzean, ordea, euskara estandarren gaira. Zertan esanik ez, interregari deritzogu «euskara batua» / «euskara estandarra» binomioaren betibetiko estekatze indarrezkoa hein batez bederen zalantzan ezartzeari ere; izan ere, euskara batua Euskaltzaindiak ezartzen dituen arauak itxuratzen eta funtsatzen baldin badute eta euskara estandarra Euskal Herrian benetan «kurri dabilen» elkarrekiko eredu orokorra baldin bada, beren artean gerta litezkeen saiheste adierazgarriak –arrazoi demolinguistikoak tarteko– zein eta nolakoak diren aztertzea onuragarri bailitzateke.

Arestian aipatu ditugun lasterbide horiek ezagutzeko eta ulertzeko dialektologian ohikoa den mailaz mailako prozesuaren irudia balia dezakegu. Hizkera batek ez ditu bere ezaugarri guztiak galtzen, eta galtzen dituenak ez ditu denak batera galtzen. Ingurunerik ingurune, garairik garai, gunerik gune, egiturarik egitura eta hiztunik hiztun galtzen ditu, besteak beste. V. M. Schirmunski-k “lehenik” eta “bigarrenik” ordezkaturikako ezaugarri dialektalen arteko bereizketa aspaldixko egin zuen: hizkera edo dialekto batean ezaugarri ordezkatuak dauden neurri berean aldaketari aurre egin dioten eta galdu ez diren ezaugarri dialektalak ere badaudela adierazten digu; ikus Bellmann (1998: 33).

Herriko euskarari dagozkion aldaera batzuen erabileraren iraupenaren edo galeraren eta beste aldaera batzuen interferentzien zurrumbilo horretan kokatu beharko dugu bilakabidea. Ingurune batzuetan herri-euskarako aldaerok txandakatzera datozen aldaera berri horiek ez dute zertan beti euskara estandarrekoak izan, berdin-berdin izan daitezke aldameneko hizkera hedatuago edota erabiliago batzuetakoak; horregatik, sortzen diren hizkuntza-errealitate berriak, diruditen baino konplexuagoak dira.

Herri anitzetan oinarria tradiziozko etxeko euskara izan arren, mailaz maila difuminatuz doa eredu hau: kera berriak sortuaz doaz, eskualdeko lektoaren, lagunarteko hizkeraren edota subestandarren osagaiak hainbat berrikuntzarekin batera ageri zaizkigu. Berrikuntza hauek euskalkiaren barrenekoak izan daitezke, edota euskalkiko hiztunen talde bateko partaideenak soilik. Eredu estandarretik «irabazi» diren hainbat elek eta ohiturak ere osatzen ahal dute definitzen aise ez den hizkera berri hori. Adierazgarria da, gainera, beste hizkuntza batzuetan gertatu diren aldaketetan ere, subestandar edo lagunarte-

ko hizkera horiek definitzen eta mugatzen zailtasuna izaten dela, ez dela soilik euskaldunon arazoa.⁹

Europako egungo azterketetan nabarmen ageri da ez dagoela dialektoa / estandarra erlazio dialektikoa soilik, dialektoak ez daude estandarrari begira bakarrik. Dialektoen artean ere gertatzen dira aldaketak eta eraginak. Ez da soilik dialektoa *versus* estandarra hartu-eman diglosikoa gertatzen. Diaglosi bat dago dialektoen *continuum*-en artean ere, eskualdeetako dialektoak edota regiolektok daude: alemanieraz mintzo diren suitzarren artean nabarmena da hau (Christen 1998: 55); bestalde, flandrieran Brabante aldeko hizkerak dira prestigioaren jomuga egun, bera da regiolekto hobetsia. Zeinahi ere den beren abstrakzio maila gora, eskualdeko hizkera edo «regiolekto» izendatzen ditugun horiek izatez badira. Euskara batu edo estandarra gauzatzen ari den une honetan ezin garrantzizkoagoa da hizkeren arteko iraganbide lauso baina egiazko honetaz jabetzea.

Uste dugu gaia hor kokatu behar dela, hizkuntzalaritzaren muin-muina den aldakortasun ordenatuaren eremuan, ez anitzek nahi duten bezala euskara batua / euskalkiak ikuspegi soil eta kamutsean. Egin beharko liratekeen azterketei eta datu-bilketei ekitekotan oinarritzko gertakari hauek gogoan izanik abiatzea komeni da.

Egun euskara batuaren eta berreuskalduntzearen inguruan sortu den edo sortuaz doan «prosodia gaztea» ere ez da gauza arrotza guretzat, egun oroz entzuten baitugu inguruan, baina horrek ez du esan nahi ongi ezagutzen dugunik, deskribapen gutzizko bat egiteko gai garenik. Antzera gertatzen da arestian aipatzen genuen estandarraren eta herri-hizkeraren bitartean dagoen iraganbide zabal eta konplexu horren guztiaren kasuan ere.

Berarengan ohikoa den hizkuntzalari-sena eta zorroztasuna darion artikulatu batean (1998), delako «prosodia gaztea» gaitzat harturik ederki itxuratzten du Miren Lourdes Oñederrak guk artikulatu honexetan erakutsi nahi dugun ideia edo sentimendua; hau da, egungo euskaraz denaz bezainbatean badakigu guti goiti beheiti zertatik zertara goazen, baina ez zaizkigu bistaratu goien-barren eta zeharbide guztiak, ez dakigu xuxen iraganbideak non gurutzatzen diren, ez dakigu zehazki noraino iritsiko diren ezta guzti-guztiak iritsiko ote diren ere. Berrikuntza batzuen abiagunea edo iturria zehatz-mehatz zein den ere ez dago beti horren garbi. Kasurik errazenetan asmatzeko gai gara, baina ez guztietan.

⁹ Anzenhofer-ek alemanierazko «Colloquial High German» delako eredu supradialektalaren berri ematen du (1998: 105).

7. HIZKUNTZA-ALDAEREN ARTEKO LEHIAZ

Zernahi aldaketa-prozesutan barreneraturik dauden hizkuntza-aldaeren antolaketa eta jokabidea ulertzeko eta egoki interpretatzeko nahitaezkoa da ordura artean aldaera horiek –adizkiak, eleak, izenondoak, hotsak, fonemak, perpausaren barreneko osagaien hurrenkera, interjekzioak...– eduki duten itxura, egitura, funtzioa eta balio sinbolikoa hein batez bederen ezagutzea; baita geografian zein lekutan erabiltzen ziren eta non ez, zein inguruetan, noren aitzinean eta zertarako jakinaren gainean egotea ere. Dialektologiak ez du aztertzen aldaera baten existentzia edo inexistentzia soilik; hori gezurra da. Hala egin denetan, dialektologia txarra egin den seinale; hobena ez da jakintzagaiarena, aztertzaile axolakabearena baizik.

Hainbat arrazoiengatik hizkera-erkidego baten barrenean hizkuntza-aldaketak gertatzen hasten direnean, geografikoak eta gizartezkoak diren eragileak lehian egon ohi dira. Aldaketa horiek homogeneousiorantz bideratzen direnean prozesuen izaerak *continuum* baten eitea hartzen du: gertakari naturalenatarik –arrazoi sozio-demografikoen garrantzia– artifizialenataraino –arrazoi historiko-literarioen indarra– gerta daitezke. Eman dezagun Euskaltzaindiak 1968an hartu erabakiak eta gerora emeki-emeki hedatu dituen arauak akademikoak eta, beraz, hein batez bederen artifizialak direla. Horrek ez du adierazten, hala ere, euskararen corpusaren barrenean aurreantzean gertatuko diren aldaketa eta berrikuntza guztiak eta estandarizazioaren inguruko garapen guztiak artifizialak izanen direnik.

Hizkuntza, edota nahiago bada, hizkera, hiztunona da, bere egitekoa du, bere baldintzak, kanpotikako presioak e.a. Berrikuntza artifizialez kanpo edota euskara batuaren gaitik landa, hizkera baten barreneko berregituraketa eragin duten hizkuntza-aldaeren arteko lehia dago, hizkeren arteko berdintze edo nahastetik kanpo egon daitekeena. Honen guztiaren adibide ona eskaini digu J. I. Uhaldek (2000). Bermeoko hitzun gazteen euskaran aditzaren sisteman aldaketa gaitza gertatu da morfologiari dagokionez: adizkiek soiltzeko joera hartu dute eta aldaeren konplexutasunean murriztea gertatu da: honela, *naien* ‘nintzen’, *tsuten* ‘nizun’, *doten* ‘nuen’, *basin tsut* ‘diezazuket’, *etorriko baleki sara*, *dxungo (leki) garisen* ‘etorriko bazina, joanen ginatke’ gisako berrikuntzak ditugu; batetik, oraineko aldaeratarik iraganeko beste automatikoago batzuk erortzen dira eta, bestetik, osagai gramatikal batzuen helmena hedatzen eta orokortzen da paradigmatako aldaerak aurrezteko.

Halaz guztiz ere, hizkuntza-aldaketaren prozesu naturalak aztertzeko hizkeren elkarbizitza eta nahasketa gertatzen ari den guneak hobesten dira gaur egun soziolinguistikan. Aukera dagoenez, azterketak sinkronikoak iza-

ten dira, ohiko hizkuntzalaritza diakronikoaren hainbat hatsarre berraztertze-ko eta behar izatez gerotan xuxentzeko eta fintzeko ahala dagoelarik. Eredu ezagun eta gerora errepikatu bat Trudgill-en 1986koa da eta XIX-XX. mende-tan Industria-Iraultza jasan duten hirietan hizkuntzek / hizkerek urbaniza-zioaren bitartez jasan duten bilakabidearen eskeman oinarritzen da¹⁰. Honako egitura ageri zaigu bertan:

- a) Eskualdeetako hizkuntza-forma edo aldaera erruralak eta aldaera urba-no ez estandarrak elkartzen edo bateratzen dira, beren arteko mixtura bat gertatzen da; berebat, ingurumaritik hirira iritsi diren dialekto edo aldaki dialektalak, batzuk besteetarik desberdinak direnak, bateratzeko edo berdintzeko joera dago: "levelling".
- b) Nabarmenak, deigarriak, arras markatuak edo dibergenteak diren berezitasunak galtzen dira eta hedatuena direnak nagusitzen: *out-group* izeneko elkar hizketetan, geografia-eremu murrizetako hiz-kuntza-ezaugarriak eremu hedatuagokoen aldean lehenik galtzen dire-nak direla ikusten da; horiexek «ezkutatu edo gordetzen» dituzte lehe-nik hitzuneke beste dialektoak mintzo dituzten hitzunekin diharduten egoeretan. Orogen buruan kutsu lokala duten ezaugarriak dira egoera polilektalean lehenik galtzen, horiexek baitira markatuena edota nabarmenena:

...the smaller the relative geographical distribution of a dialect feature the earlier and/or faster is levelled out. Among other things this is evident from the fact that the ratio of dialect features showing overall loss to / dialect fea-tures investigated decreases with increasing geographical distribution (Hinskens 1998: 43).

- c) Erregularitasun morfofonemikoa indartzen da.
- d) Ordura arteko hizkuntza-aldiera dialektalen edo estilistikoen koka-pen berria gertatzen da: funtzio edo adiera (balio sinboliko) berria hartzen dute identitatearen edota konbergentziaren / dibergentziaren bidetik.

Euskaldunok darabilgun eredu batua zazpi euskal herrietako euskaltzai-nek beren bilkuretan mahai baten inguruan ondua denez, norbaitek galde lezake ea Trudgill-en eredu horrek zerbaitetarako balio ote digun guri. Desberdintasunak gora-behera, eredu batuaren etorkizuna ez dago guztiz eus-

¹⁰ Eredu honen erabilera-egokitasunaz nahiz egin zaizkion kritikez hurrengo azterketak ikus daitezke: Bortoni-Ricardo 1985, Maehlum 1986, Siegel 1993 —Trudgill-ekiko kriti-koa—, Nordberg 1994, Thomas 1997, Lodge 1998...

kaltzainen eskuetan, euskaldun garenon eskuetan baizik. Bestalde, hizkera/hizkuntzen batasunerako eta modernizaziorako arestian ikusi diren a, b, c eta d gertakariak aski iduriak dira leku guztietan; mailan, erritmoan edota norabidean gerta daitezke desberdintasunak; ez nagusiki funtsean.

Ohiko dialektologiatik soziolinguistikara iragan beharko dugula eta euskararen arloan ere berdintsu egin beharko dugula esaten denean, euskararen beraren ezaugarri bat gogoan hartu beharra dago: gure hizkuntzan ez dirudi desberdintasun diastratiko ugari dagoenik.

Badira erdal maileguk eta erek kutsatuago dauden hizkerak, garbiago eta jatorrago iraun dutenak dauden bezala. Euskal hizkera batzuetan arkaismo gehiago gorde da edota morfologian aldaera aberatsagoak eta konplexuagoak kontserbatu dira. Euskaldun batzuek zuketa ez alokutiboa aski dute eguneroko bizimodurako; beste batzuek hiketa eta are xuketa darabilte. Apenas gelditzen da gure herrietan egunero beroriketan aritzeko premia sentitzen duen adinekorik. Halaz guztiz ere, erregistro kontuari dagokio hau guztia, aditzaren morfologiaren alderdi batzuei, ezin pareka dezakegu beste hizkuntza batzuetan sumatzen den aldakortasun diastratikoaren barreneko banaketa garden eta iragazkaitzarekin.

Badakigu alderdi anitzetako handikiak edo hainbat herritar xume goranahi erdara ikasi eta erabili izanagatik aldendu direla Euskal Herrian ondoan zituzten kideengandik. Ez dirudi, ordea, euskara erabiliak bizi izan direnek, bizitzeko euskara aski zutela iritzi diotenek edota beste erremediorik izan ez dutelako euskaraz mintzatzen jarraitu dutenek, beren eguneroko euskararen aldakortasun diastratikoko mailak –nabarmenak bederen– erabili dituztenik. Harritu behar ote gaitu honek? Azken batean, gizartean gerta daitezkeen alde, desberdintasun eta banaketak islatzen dira hizkuntzan; hartara, gizarte-egitura eta errealitateak leku batetik bestera aldatzen diren hein berean aldatu beharko dute gizarteko gertakariak hizkuntzan duten isladek eta ondorioz, leku batzuetan hizkuntza-desberdintasun bertikala edo diastratikoak –gizartearen barrenekoa– nabarmenagoa izanen da beste batzuetan baino.

So egin diezaiozun suediera erabiltzen den bi hiritan gertatzen denari. Finlandiako Närpes-en suedieraz mintzo dira bertakoak eta erlatiboki homogeneoa da darabilten hizkera. Ekonomia-arrazoiak bitarte hiri horretako lagun batzuek Suediako Eskilstuna hirira emigratu behar izan dute. Han ere suedieraz mintzo diren arren, bertako hizkera berezia berentzat berria da eta ikasi beharrekoa, baina hiri hartako suediera arras estratifikaturik dago, aldakortasun interindibiduala handia da eta gizarteko aldeak islatzenago dira Eskilstunako hizkeran Närpes-koan baino; hizkera erlatiboki homogeneoa da

Närpes-koa (Ivars 1994: 206). Ez dezagula pentsa, beraz, euskaraz gertatzen den bezala, leku guztietan hizkuntzaren aldakortasunaren funtsik nagusia geografian ardatzari dagokiola; ezta ere, hor zeharko hizkuntzetan eta egoeretan usu aurkitzen dugun errealitatea, aldakortasun diastratiko nabarmen hori, nahitaez euskararen barrenean aurkitu behar dugula: non nola.

8. LEHIAREN ONDORIOEZ

Ohi bezala, zoragarri idatzirik dagoen Iñigo Aranbarriren artikulua batean, euskalki-erregistroa¹¹ erregistro sozialarekin identifikatzea arazotzat hartzen da (1999: 58): Bizkaiko berbetea omen darabil Euskadi Irrati-ko saio batean estudioa garbitzera sartzen dela egiten duen aktoreak¹². Iñigo bezalako Azkoitiko euskaldun jator batentzat gogorra behar du izan euskalkia gizarte-ko maila apalekin identifikatze hori, baina ez dezagun ahantz, ebaluazio soziala, balore-sistema eta botere-erlazioak hizkuntzaren/hizkeren bidez adieraz daitezkeela (Kristiansen 1998: 127), nahiz hori orain artean euskaraz ez dirudien gauza arrunta. Identitate-sortzaile dira, inolaz ere, hizkuntzaren baitako hainbat eta hainbat ezaugarri eta osagai. Dena den, «edukaziorik gabeko jendearena da», «erregionalismoa da», «baserritarrek erabiltzen dute», «maila sozio-kultural apala adierazten du», «anatomyako hutsa da» edota «zatarra da»

¹¹ Erregistroaren definizio bat nahi izanez gerotan, ikus Abad (1996: 15).

¹² Aldeak alde, ez dugu uste esatari giputz biziki bikain eta ezagun batzuen ahotik irrati horretan berean egun oroz behin bederen entzun behar izaten ditugun *bistaizo*, *arratsalde parte* edo *peskiza* bezalako eleak aise onestekoak direnik: lanbide horrek horrenbeste aldarrikatzen duen hizkeraren naturaltasunaren eta hurbiltasunaren izenean eta kazetarien ohiko setakeriaz *ad nauseam* errepikatzen dira ele horiek eta inork ez dakiela nola, kontsignapeko bailiren, langa guztien gaintetik eta petik azkarki hedatzen dira Euskal Herriko azken zokoraino. EITB-ko euskara arduradunak dioten legez «ondorioz, gaur egun molde horretako hiztun ez direnek ere imitatu egiten dituzte halako ereduak, horixe "eredu" direlakoan» (Etxebarria 1996: 551). Balio du berriz ere gogora ekartzea ele horiekin euskarak irabazi, ez duela deus irabazten. Euskal Herria arrailduraz josirik uzteko baizik ez dira ele horiek, hango eta hemengo euskaldun guztiok ulertzen ditugunei itzala egiteko soilik; zoko bati dagozkio eta kazetaritzaren baitako biderkaketaren eragina lagun, hedadura handiagoko ele euskarazkoak ordezkatzan dituzte; euskarak sos ofiziala irabazteko balio ez duen eremuetako euskaldun eredu batuaren gorrotatzaile sezesionista anitzi sobera errazten die egitekoa, gainera, kazetari ezagun eta bikain horien jardun zabar horrek. Anitz dira lehen ere gai honetaz eta iritzi hau hedatuaz idatzi duten euskalariak; adibide on bat K. Zuazorena dugu (1993: 59). Ez baita lekurik egokiena, hemen ez dugu azken honetan horrenbeste entzuten den «soberanía lingüística» delakoaz deus esanen.

bezalakoak ez dira guztiz ezezagunak euskaraz; nork daki etorkizunean hone-lakoak ez ote zaizkigun ugalduko eta are barreatuko.

Euskalkia dela eta, ez dakigu xuxen Euskal Herriko hainbat bazterretan zer gertatuko den. Lehen-lehenik aitortu behar da gaur egun euskalkia baizik erabiltzen ez duten gehienek eredu estandarra ez dutela ezagutzen eta etorkizunean euskaldun ia guztiek, denek ez esateagatik, neurri handian estandarra ezagutuko dutela. Gizarte modernoetan, hainbat eskubide eta pribilegio esku-ratzeko edota halako ogibidea edo honelako bizilekua izateko, bestela esan, gizarteko egitura batzuetara sarbidea izateko, hizkera estandarra ezagutzea aski baldintza arrunta izaten da. Ez dugu uste euskalkiek beren lekua galduko dutenik, ez osoki bederen, baina gerora gauzak ez dira orain bezala izanen, zerbait aldatuko da, nahiz oraingoz sobera goiz den hemengo edo hango jen-dearen ohitura lektalez deus garbirik eta ziurrik aurreikusteko.

Eman dezagun eredu bila Alemaniara jotzen dugula; joan gaitezen Berlinera, harresia eraitsi aitzineko atzo goizeko Berlinera: hiriko bereko mintzoaren prestigioari edo estigmari dagokionez ekialdeko alderditik mendebalekora zegoen aldea sekulakoa dela ezaguna da (Dittmar, Schlobinski & Wachs 1988a eta 1988b). Hona hizkeren gizartezko sinbolismoaren gaitik eta orain-tsu arteko Alemaniako Errepublikak Federaletik irten gabe beste aipu bat, etorkizunean euskalkiekin gerta daitezkeenek ustekabeen harrapa ez gaitzaten:

Los dialectos han perdido su función como medios de comunicación pública en determinados ámbitos regionales, y son, cada vez más, empleados como indicadores sociales de atraso o de inferioridad o como indicadores de cierta conciencia de élite (como, por ejemplo, en Baviera). Los dialectos no se mantienen ya en su antigua función y, mientras tanto, han adoptado una nueva función. Los dialectos son ahora rasgos de situación social y pueden ser asociados a los hablantes como medio de reconocimiento (M. Hartig, *Sozialer Wandel und Sprachwandel*, 12. or. Ikus F. J. Zamora 1986: 291-2).

Ez dugu, bestalde, ingurune metalinguistikoetarik ateratzen diren erantzunetan sineste handirik izan behar. Jende danimarkarren artean inkesta esplizituetan dialektoen galera ondikozkotzat jotzen den arren, oharkabeen egin inkestetan, zinezko sentimendu, jarrera eta jokabideak islatzen diren horietan, dialektoa estigmari loturik dagoela ikusi ahal izan da (Kristiansen 1998: 121).

Baina estandarraren aitzinean dialektoa begi onez ikusten den edota egu-nero eta inolako arazorik gabe erabiltzen den eremurik ez da falta hor barrena: beti ematen den adibidea alemanieraz mintzo diren suitzarrena da (Moulton 1968: 452), nahiz han ere gauzak aldatzen ari diren (Christen 1998: 53). Norvegiakoa ere gogoangarria da: *bokmal* eta *nynorsk* aldaki estandarizatu-etz gain, ugari dira eskualdeetako nahiz eremu murriztagoetako aldaki one-

tsiak; jendearen aitzinean erabiliak izateko aldeko bulkada biltzen dute gainera (Nordberg 1994: 6-7).

Etorkizunean euskaraz zer aldaketa nagusi gertatuko diren ikusteko dago oraino. Lehen-lehenik euskarak behar du indarra hartu, soziologoei esan duten legez, azpigizarte euskaldunaren protagonismo sozial erakargarria funtsezkoa da. Ez dakigu euskaldunon artean zein eratako ideologia gramatikala nagusituko zaigun; ez dakigu eredu estandarra hirietan herrixketan baino lasterrago eta sakonago hedatuko ote den ere, ohiz hirietan ageri baita nabarmenen estandarraren indarra; hirietan erkidegoen arteko hartu-emanen konplexutasunak pertsonen rola gehiago jokatu beharra eragiten du eta horrek norberaren aldakortasun lektala areagotzea dakar, baina baita maiz ahalik eta eredurik neutroenaren beharra ere. Donostiako kasuan, gainera, bertako hizkera eta eredu batuaren arteko lezea handia ez izateak balirudike zerikusia izan duela kaxkariñen euskararen urtze horretan.

Oraingoz eta Hegoaldeko eta Iparraldeko Euskal Herriak banaturik eta bi erdara ahaltsuren menpe jarraituko dutela pentsa daitekeenez, galtzak bete lan dukegu datorren estandarra bat eta bakarra izan dadin, hala ahozko eredu nola idatzizkoan. Gai honetaz Arbelbide (1988) eta Oihartzabal (1993) guztiz aintzat hartzeko iritziak direla iruditzen zaigu; bereziki nabarmentzekoa da Ürrüxtoi-Larrabileko J. L. Davant euskaltzainaren esana: batura iragarteko zuberotarrek lapurtera behar dutelako idazle honen iritzia (1996: 533) gogoan hartzekoa da. Ipar Euskal Herriko euskarak oro har behar omen du lapurteraren bermea:

...lapurtera gehiegi bazter uzten dugu iparraldekoek ere, gure literaturaren ardatza delarik, huts handia baita baturako bidean eta batuaren mamian, gipuzkerak bezainbat leku behar duelarik hor lapurterak (539).

Mendebaleko euskaldunen kasuan ere hamaikatxo arazo ageri zaigu herriko euskararen eta estandarraren zubigintzari dagokionez; adinekoen berbetea den bezala geldituko dela onarturik ere, haurren eta gaztetxoek kasuan eredu biak behar bezain ongi finkatzeko eskolak dituen arazoak behin eta berriz aipatzen zaizkigu hor zehar (Goikoetxea 1996) eta ez da halabeharra «Mendebalde Kultur Alkartea»-k zubiaren irudia erabiltzea. Guri Bizkaiko eta oro har mendebaleko euskararen problematikak Alemaniako hegoaldeko hizkerekin ageri dituen paralelotasun izpiak nabarmenak direla iruditzen zaigu; hegoaldeko hiztun alemaniar baten errealitate dialektalaren ikuspegi subjektibo baterako, Anzenhofer (1998) adibide egokia izan daiteke.

Norbaiti agian mutur-muturreko adibideak irudituko zaizkion arren, lehiaren ondorioez dihardugunez, hainbat euskaldunentzat etsipengarri gerta

daitekeen, baina hor zehar dagoeneko gertatu den errealitate baten berri eman nahi dugu atal hau bukatzeko. Testuingurutik kanpo egonik ere, dialektoen arteko hartu-emanen –beraz, lehiaren– ondorio diren egoera pare bat dakartzagu, Ingalaterrakoa bata (1) eta Alemaniakoa bestea (2):

1) We can also regard them –since multiple causation is always likely in linguistic change– as a result of the dialect contact situation leading to “dialect death”, with a consequent loss of knowledge by local people of how exactly the local dialect is spoken (Trudgill 1988: 560).

2) To conclude, back to my spoken German, I am still able to speak S[tandard] H[igh] G[erman], but as it comes to me quite naturally, I will sooner or later always fall back into my personal idiom. However, my native dialect (or rather the pure form of it) I cannot speak anymore - at least not spontaneously. I am able to make up sentences and to construct even longer texts in it, but... (Anzenhofer 1998: 106).

Beharbada lekeitiar edo azpeitiar batentzat bi aipu hauetako errealitatea arras urrun egon daiteke, baina gero eta gehiago dira arestiko gertakari hori horrelaxe bizi duten eta sentitzen duten egungo sortzezko euskaldunak, bereziki beren herri-hizkeraren eta euskara batuaren eredia iduriak izanik elkarren arteko urtzea edo biltzea ustegabekoa, oharkabekoa eta lausoa denean.

BIBLIOGRAFIA

ABAD, Mercedes (1996), “Propuesta metodológica para el análisis sociolingüístico de textos históricos”, in P. Díez de Revenga & J. M. Jiménez Cano (arg.), *Estudios de Sociolingüística. Sincronía y diacronía*, DM, Murcia, 9-24.

AMONARRIZ, Kike (2002), “Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena: gazteak eta euskara mendearen hasieran”, in *IX. Jardunaldi pedagogikoak. Euskararen erabilera*, Ikastolen Elkartea, 417-440.

AMORRORTU, Estibaliz (1995), “Retention and accommodation in the Basque of Elko, Nevada”, *ASJU* 29/2-3, 407-454.

ANZENHOFER, Thomas (1998), “Dialects and standardisation: some (subjective) observations on German”, *International Journal of Dravidian Linguistics* 27/2, 97-106.

ARANBARRI, Iñigo (1999), “Hizkuntzaren koloreak”, in *Euskalkien lekua literaturan*, Mendebalde Kultur Alkartea, Bilbo, 145-161.

ARBELBIDE, Xipri (1988), "Batu ditzagun Iparraldeko ta Hegoaldeko Batua", in "Euskara batuak 20 urte bete ditu, baina... Batua batu ote?", I. Camino prestatzaile, *Euskal Kulturaren Urtekaria*, Argia, 1988, 161-191.

AUER, Peter (1998), "Dialect Levelling and the Standard Varieties in Europe", *Folia Linguistica* 32/1-2, 1-9.

BELLMANN, Günter (1998), "Between Base Dialect and Standard Language", *Folia Linguistica* 32/1-2, 23-34.

BORTONI-RICARDO, Stella M. (1985), *The urbanization of rural dialect speakers. A sociolinguistic study in Brazil*, Cambridge University Press.

CAMINO, Iñaki (1997), *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

— (2000), "Abiaburu bat Donostiako euskera aztertze", in K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 51-81.

CAMINO, Iñaki (arg.) (1998), "Nafarroako hizkeren azterketa eta euskara estandarra: Euskalerrria Irratiko mahai ingurua", in *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak: Iruñea, 1997/XI/24-28*, UEU, Bilbo, 163-176.

CHRISTEN, Helen (1998), "Convergence and Divergence in the Swiss German Dialects", *Folia Linguistica* 32/1-2, 53-67.

DAVANT, Jean-Louis (1996), "Euskalkien eta euskara batuaren arteko harremana nolakoa den Iparraldean", *Euskera* 41/3, 531-539.

DITTMAR, Norbert & SCHLOBINSKI, Peter (arg.) (1988), *The Sociolinguistics of Urban Vernaculars. Case Studies and their Evaluation*, Walter de Gruyter, Berlin-New York.

DITTMAR, Norbert; SCHLOBINSKI, Peter & WACHS, Inge (1988a), "Variation in a Divided Speech Community: The Urban Vernacular of Berlin", in N. Dittmar & P. Schlobinski (arg.), 3-18.

— (1988b), "The Social Significance of the Berlin Urban Vernacular", in N. Dittmar & P. Schlobinski (arg.), 19-43.

ELEXPURU, Juan Martin (1996), "Herri-euskararen eremua", *Euskera* 41/3, 523-529.

ELKAR HIZKETA [K. Amonarriz, A. Larrinaga & K. Zuazo] (2002), "Kaleko hizkeran hankamotz", *Argia* 1850, 2002/IV/21, 15-23.

ELORDIETA, Gorka; GAMINDE, Iñaki & UHALDE, José Ignacio (1998), "Euskal azentua gaur eta bihar", *Euskera* 43/2, 399-423.

ETXEARRIA, Igone (1996), "Euskalkiak EITB-n: orain arteko jokabidea eta ondorioak", *Euskera* 41/3, 547-555.

FRAILE, Idoia & FRAILE, Ainhoa (1996), *Oiartzungo hizkera*, Oiartzungo Udala.

GAMINDE, Iñaki & HAZAS, Almike (1998), "Zumaiako azentuaz eta intonazioaz", *Uztaro* 24, 59-76.

GARMENDIA MUNDUATE, Larraitz (2003), "Hizkuntza aldakortasuna Zaldibiako euskarari: ikuspegi soziolinguistikoa", in *Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarra, Bilbo, 2001/IX/17-19*, Iker sailean agertzeko, Euskaltzaindia, Bilbo.

GILES, Howard (1977), "Social psychology and applied linguistics: towards an integrative approach", *ILT Review of Applied Linguistics* 35, 27-42.

— (1980), "Accommodation theory: some new directions", *York Papers in Linguistics* 9, 105-136.

GILLES, Peter (1998), "Virtual Convergence and Dialectal Levelling in Luxembourgish", *Folia Linguistica* 32/1-2, 69-82.

GOIKOETXEA, Juan Luis (1996), "Euskara batua eta bizkaiera ikasgelan", *Euskera* 41/3, 517-521.

GÖRLACH, Manfred (1999), Klaus J. MATTHEIER and Edgar RADTKE (eds.), *Standardisierung und Destandardisierung europäischer Nationalsprachen*, 1997, book review, *Linguistics* 37/1, 187-188.

HINSKENS, Frans (1998), "Dialect Levelling: A Two-dimensional Process", *Folia Linguistica* 32/1-2, 35-51.

IVARS, Ann-Marie (1994), "Bidialectalism and Identity", in B. Nordberg (arg.), *The Sociolinguistics of Urbanization: The Case of the Nordic Countries*, Walter de Gruyter, Berlin-New York, 203-222.

— (1998), "Urban Colloquial Swedish in Finland", *Folia Linguistica* 32/1-2, 101-114.

KASARES, Paula (1999), "Aunitz dakit, bizitzen badakit. Baztan (Nafarroa), hizkuntzaren antropologiatik aztertua: hizkuntzen kategorizazioa komunitate elebidun batean", *Bat* 30, 79-94.

KRISTIANSEN, Tore (1998), "The Role of Standard Ideology in the Disappearance of the Traditional Danish Dialects", *Folia Linguistica* 32/1-2, 115-129.

LODGE, Anthony (1998), "Vers une histoire du dialecte urbain de Paris", *Revue de Linguistique Romane* 245-6, 95-128.

MACAULAY, Ronald K. S. (1975), "Negative prestige, linguistic insecurity and linguistic self-hatred", *Lingua* 36, 147-161.

MARTINEZ DE LUNA, Iñaki (2001), "Euskararen ajeak eta sendabelarrak", *Jakin* 126, 106-108.

MOULTON, William G. (1968), "Structural dialectology", *Language* 44/3, 451-466.

NORDBERG, Bengt (1994), "Introduction", in *The Sociolinguistics of Urbanization: The Case of the Nordic Countries*, Walter de Gruyter, Berlin-New York, 1-15.

NORDBERG, Bengt (arg.) (1994), *The Sociolinguistics of Urbanization: The Case of the Nordic Countries*, Walter de Gruyter, Berlin-New York.

OIHARTZABAL, Beñat (1993), "Euskara batuari Iparraldetik behatuz", *Jakin* 76, 79-89.

OÑEDERRA, Miren Lourdes (1992), "Hizkuntzen osasuna. Neurbide eta diagnosi linguistikoak", *Bat* 7-8, 141-157.

— (1998), "Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak", *Euskera* 43/2, 439-449.

SALABURU, Pello (2002), "Euskara arriskuan dago", in *Euskararen etxea*, Alberdania, Irun, 150-187.

SCHIRMUNSKI, Viktor M. (1930), "Sprachgeschichte und Siedlungsmundarten", *Germanisch-romanische Monatsschrift* 18, 113-122; 171-188.

SÉGUY, Jean (1973), "La fonction minimale du dialecte", in G. Straka & P. Gardette (arg.), *Les dialectes romans de France à la lumière des atlas régionaux* (Colloque de Strasbourg 1971), C.N.R.S., Paris, 27-37.

SIEGEL, Jeff (1993), "Dialect contact and koineization", *International Journal of the Sociology of Language* 99, 105-121.

SWIGGERS, Pierre (1997), "L'apport theorique de la dialectologie: illustration a partir d'un cas concret (le dialecte brabançon de Louvain)", in *Proceedings of the 16th International Congress of Linguists*. Pergamon, Oxford, paper n°. 0113.

TAELEDMAN, Johan (1998), "Levelling Phenomena in the Flemish Dialects: Some observations on their teleology", *Folia Linguistica* 32/1-2, 11-22.

TERRACINI, Benvenuto A. (1937), "Minima: Saggio di ricostruzione di un focolare linguistico minimo", *Zeitschrift für Romanische Philologie* 57, 673-726.

— (1960), "Il concetto di lingua comune e il problema dell'unità di un punto linguistico minimo", *Bollettino dell'Atlante Linguistico Italiano* 5/6, 12-24.

THOMAS, Paul-Louis (1997), "Le serbo-croate (bosniaque, croate, serbe). De la dialectologie rurale à la dialectologie urbaine", in *Proceedings of the 16th International Congress of Linguists*, Pergamon, Oxford, paper n° 0114.

TRUDGILL, Peter (1986), *Dialects in contact*, Blackwell, Oxford.

— (1988), "On the role of dialect contact and interdialect in linguistic change", in J. Fisiak (arg.), *Historical Dialectology. Regional and Social*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York-Amsterdam, 547-563.

UHALDE, José Ignacio (2000), "Bizkaiko kostaldeko hizkerak atzo, gaur eta bihar", in K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 11-25.

UHALDE, José Ignacio; ELORDIETA, Gorka & ELORDIETA, Arantzazu (1994), *The Basque dialect of Lekeitio*, ASJU-ren gehigarriak 34, EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbo-Donostia.

ZAMORA, Francisco José (1986), "Algunos aspectos psicosociolingüísticos y contextuales de la variación lingüística", *Anuario de Lingüística Hispánica* 2, 277-323.

ZUAZO, Koldo (1993), "Euskalkiak, askatu gabeko korapiloa", *Jakin* 76, 41-62.

— (1997), "Oiartzungo hizkeraren kokagunea", *FLV* 76, 397-425.

— (1999a), "Batua versus euskalkia?", *Argia* 1726, 1999/VIII/1, 17-22.

— (1999b), "Euskararen osasuna eta euskalkiak", *Euskera* 44/1, 355-362.

— (2000), *Euskararen sendabelarrak*, Alberdania, Irun.

— (2002), "Hizkuntza egitasmoa", in K. Zuazo & Badihardugu Euskera Alkartia, *Deba ibarretik Euskararen herrira*, Badihardugu, Deba ibarra.